

KRISTAU “MAOISMOAZ”

Jean Louis Davant

Herria, 2621. zenb., 2001

Iragan otsailaren lehenean, Amiküzeko lehen ostegunean, Donapaleuko Frantziskotarren etxean Mañex Erdozaintzi-Etxarti egin genion omenaldian, aipatu nituen haren “budismoa” eta “maiosmoa”. “Budismoaz” argibideak eman nituen hemen martxo hastean.

Mañexen “maoismoa” ere kakotxen artean ezartzen düt, ez baitzen maozalea, zentzu hertsian, bistan dena. Txinako buruzagi ohiarenak baino baketsuagoak ziren haren helburuak, jokabideak eta jokaerak. “Maoismo” hitz horrekin, gauza hau dut adierazi nahi soil-soilik: Maok bezala, Mañexek bat egiten zituela bere baitan aberriaren aldeko borroka eta jende xehearen aldekoa.

Enetzat ez zen harritzekoa Ibarlako semearen ideologia hori, Oztibarren euskalduna eta xehea baitzen populu guzia. Halabertsu arras hurbila dugun Amiküze hortan, diferentzia ttipi horrekin halere: laborariak ez bezala, frantzimantak zirela jaun eta jabe batzuk, eta honek areagotzen baizik ez zuen Mañexen ikuspegia.

Pastoraletan bezala mintzatuz erran dezaket kontrajartzen ahal zirela Donapaleuko “türk” haien gutiengoa eta inguruko “kiristien” gehiengoa, eguna eta gaua bezain ongi zatituak, salbuespen gatzu goiti-beheiti. Mañexek bezalaxe pentsatzen zuen, adibidez, ene amaginarreba zenak. Alargunduta, bizpahiru aldiz auzi gogorretan ari izana zen etxetiar bezala zauzkan zuzenen zaintzeko. Harentzat ere gauza bakuna zen euskal gatazka herrikoia, bat egiten zituen bere gogobihotzetan jende xehe izatea eta euskaraz artzea, baita girixtino fedeak dakarren elkartasuna, ondorio guziekin.

Mañexen baitan, halaber, indar berezia zuen kristau oinarriak euskaldun jende xehearen

aldeko borrokan. Frantsizkotarren ildo zahar, eta iraunkorretik bazabilan hor, behartsuen zerbitxuko, bereziki Donapaleuko lagundian. Zenbat bilkura aterpetu duen fraide etxe horrek! Mota guzietarikoak, haietan erlisionezkoak ere, baina beti aberria eta jende xehea gogoan, hots “herria” bi zentzuetara: batetik “lurra” betiko zentzuan, bestetik “populua”, hegoaldeko batzuek herria hitzari eman dioten zentzu berri, diskutagarrian...

Baionako “Fededunak” taldean, eragin handia ukan zuen Mañexek, Claude Harlouchet zenarekin eskuz-esku. Askapenerako teologia bat eskaini nahi zioten Euskal Herriari, baina denak ez zauden ados, bide klasikoago bat atxikitzen zuten batzuek, eta hausketa bat bezala gertatu zitzaigun, taldearen kaltetan.

Mundua zinez aldatu da geroztik. Euskal Herria ere bai. Hiritartu zaigu dena, baserri zokoraino, bereziki komunikabide berriei esker. Ber denboran, denetan sartu zaigu kapitalismoa, maskaturik bezala, itxura ezberdinak hartuz. Zinez berritu da laborantza ere. Non dago gaur Amiküzen eta Oztibarren asma zaitekeen sinpletasun bibliko hura?

Dena da hain konplikatu eta aldakorra! Jende xehe klasikoaren eta ohiko nausien artean, ofizio berriak agertzen ikusten ditugu noiz nahi, aberats berriak ere sortzen uste gabeko lekuetan. Eta hona orain mundializazio famatua, egia erran aspalditik hasia ixilka...

Pratikan, arrapostu berriak asmatzen ditu jendeak bere xokoan, ahal bezala, maiz ongi ere. Baina non daude gaur beharren arabeko teoriak eta ideologiak, ekintzaren alorrean argi pixka bat ekar dezaketanak? Gauditua balin bada ere 1970 urte haietako kristau maokrazia simple hura, sekula bezain beharra da Euskal Herriaren eta justizia sozialaren aldeko borroka.